

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2019



EUSKARA

PRUEBA

SOLUCIONARIO





Argibideak

Galdera bakoitzaren ondoren dator bere balioa.

Irakurri testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.

“Nerea dut izena eta ez naiz desgaitua”

“Nerea dut izena eta ez naiz desgaitua. Desgaitasun bat daukat, miopia dudana bezalaxe. Aurreiritzi zaharkituak azpimarratzen dituen hizkuntza daukagu, eta hizkuntzaren bidez estereotipoak eta balio-irritziak sor ditzakegu, besteengan eragiten duten pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditugulako. Ez dadila izan ezgaitasuna definitzen gaituena; ez sustantibizatu adjektiboa”.

Nerea Gabilondo da mintzo dena. 31 urte ditu eta **kexu** da, norbait ezagutzen duen aldiro galdetzen diotelako ea nola bukatu duen gorpildun aulkian, nahiz eta berak beste mila gauza izan kontatzeko. “Beti kontu bera azaltzeaz nekatuta, istorio fantastikoak asmatzen hasia naiz, horrela beste pertsonak bere jakin-mina **asetzen** du eta nik nire irudimena garatzen dut”.

“Normala” dela dio Gabilondok, “baina zer da normaltasuna? Klub **prestigiotsu** bat al da, non onartua izateko etiketa guztiak ez duten berdin balio? Etiketa batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa dute, beharbada onartuago daude. Mioepa normaltasunaren klubean sar daiteke, gorpildun aulkian doan pertsona ez”.

“Hizkuntzak dituen traba mentalak”

Inklusioa lortzeko bidean, hizkuntza eta hitzak funtsezko direla dio Gabilondok: “Desabantaila sozial batetik atera diren kolektibo guztiak kalte egiten zien hizkuntza aldatu behar izan dute lehenengo, hizkuntzak gure pentsamendua eta **mundu-ikusker**a determinatzen duelako. Hitz zaharkituak, okerrak edo desegokiak erabiltzen baditugu, irudi negatiboak **betikotu** eta pertsonak **estigmatizatu** ditzakegu. Kontzienteki egiten ez badugu ere, beharrezkoa da hizkuntzak dituen traba mental horiek ezabatzea”. Azken finean, “desgaitasunik ez duen pertsonak, gaitasuna al du lan, mugimendu, kirol... guztiak egiteko? Ezetz esango nuke”.

Normal izatea, egungo gizartearen fikzio handia

Ildo horretan, eta buruko gaitzen ikuspegitik, normaltasunaz hitz egin zigun Lucía Gricman psikologoak: “Nire irakasle batek esan zidan egungo gizartearen gauzarik larrienetakoa normaltasuna dela. Muga indartsua dago normal izatearen eta ez izatearen artean, hori da egungo gizarteak sortzen duen fikzio handia. Parte izatea edo ez, horra hor bizi dugun **patologia** kolektiboa(...). Azkenean denak gaude **at**, normal izan nahi eta inork ez duelako fikzio hori lortzen. Kanpoan geratu naizenean, zer egin beharko nuke, berriz ere normal izaten ahalegindu, ala nire ezberdintasunetik jokatzen ikasi?”.





GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (erabilera-eremua, testu tipoa, testu generoa, igorlea, hartzaileak) eta arrazoitu zeure erantzuna. (1,5 puntu)

2. Zein da testuaren helburua? (0,5 puntu)

- Kontatzea zeintzuk diren Nerearen sentimenduak.
- Deskribatzea pertsona desgaituek nolako bazterketa egoerak bizi dituzten.
- Adieraztea hizkuntza aldatu behar dugula denen inklusioa lortu nahi badugu.
- Salatzea desgaitasunak dituzten pertsonak azalpen asko eman behar dituztela beren egoera azaltzeko.

3. Esan, testuak dioenaren arabera, honako esaldi hauek egiazkoak ala gezurrezkoak diren (testuan esaten ez dena gezurtzat hartu behar da). (1,5 puntu)
Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (0,5 puntu)

- Nereak gustura azaltzen du zergatik dagoen gurpildun aulkian, horrela bere desgaitasuna arindu egiten du.
- Gabilondoren iritziz, ez dago ondo zehaztuta zer den normaltasuna; gizarteak ez daki zer den normala izatea.
- Testuaren arabera, denok gara desgaituak gauza batzuetarako modu batean edo bestean.
- Pertsona guztien inklusioari laguntzeko hizkuntza aldatu egin behar da.
- Gricman-en ustez, denok sentitzen dugu normaltasunaren barruan bizi garela.

4. Testuak, sarrerez gain, lau paragrafo ditu. Laburbildu paragrafo bakoitzaren ideia nagusia (2,5 puntu)

5. Testuko esaldi hauen esanahia azaldu zeure hitzak erabiliz. Azalpenari laguntzeko, adibideak jarri. (2,25 puntu)

- Ez dadila izan ezgaitasuna definitzen gaituena; ez sustantibizatu adjektiboa.
- Desgaitasunik ez duen pertsonak, gaitasuna al du lan, mugimendu, kirol... guztiak egiteko? Ezetz esango nuke.



- Klub prestigiotsu bat al da, non onartua izateko etiketa guztiek ez duten berdin balio? Etiketa batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa dute, beharbada onartuago daude.

6. Testuan zenbait hitz dituzu kolore grisez nabarmenduta. Hitz horien sinonimoak eta baliokideak dituzu hemen. Idatzi testuko hitz bakoitzari dagokiona (deklinatuta eta konjugatuta gabe daude). (1,25 puntu)

kanpo	iraun(arazi)	(gogo)bet	haserre edo nahigabeturik	gauzak ulertzeko era
-------	--------------	-----------	---------------------------	----------------------

gaixotasun	izen handiko	zerbait edo norbait ezagutu aurretik hartaz izaten den ustea	behin-betirako gaitzetsi	nabarmendu
------------	--------------	--	--------------------------	------------



EBAZPENA EUSKARA (2019ko maiatza)

GALDEREN ERANTZUNAK

1.

Euskal aldizkari batean, Argian, argitaratutako testua da, bukaeran aipatzen den bezala. Beraz, erabilera-eremuari dagokionez, hedabideak edo gizarte komunikabideetako da, prentsa idatziari lotua. Testu tipoari dagokionez, argudio testua da. Igorleak beste batzuen iritziak jasotzen ditu eta ideia horiek berresteko argudioak eta iritziak adierazten ditu elkarrizketa txatalak eta iritziak elkartzuz, irakurleei adierazteko gizartean hizkuntzaren bidez transmititzen ditugula aurreiritzi eta balio zaharkitu asko eta inklusioa lortzeko hizkuntza aldatu behar dugula lehendabizi. Testua, bestalde, Interneten argitaratua dago eta blog bateko post edo sarrera da, bukaerako irudi eta ikurrek adierazten duten bezala (informazioa konpartitzeko Google, Facebook, Twittererako estekak ditu). Igorlea Mikel Garcia Idiakez da eta puri-purian dagoen gizarte gai bat ekartzen digu, desgaitasunak eta inklusioa. Hartzaileari dagokionez, publiko zabalari idatzitako testua da. Post baten bidez protagonisten iritziak jasotzen dituen argudio testua dugu hau.

2. C. Adieraztea hizkuntza aldatu behar dugula denen inklusioa lortu nahi badugu.

3.

	E	G
1. Nereak gustura azaltzen du zergatik dagoen gurpildun aulkian, horrela bere desgaitasuna arindu egiten du.		X
2. Gabilondoren iritzi, ez dago ondo zehaztuta zer den normaltasuna; gizarteak ez daki zer den normala izatea.	X	
3. Testuaren arabera, denok gara desgaituak gauza batzuetarako modu batean edo bestean.	X	
4. Pertsona guztien inklusioari laguntzeko hizkuntza aldatu egin behar da.	X	
5. Gricman-en ustez, denok sentitzen dugu normaltasunaren barruan bizi garela.		X



Okerrak: 1. eta 5.

(1): Nerea aspertuta dago dagoeneko, istorioak asmatzen hasita dago, ez du azalpen gehiago eman nahi.

(5): Ez, gizarteak fikzioa bizi du, denok normaltasunaren bila aritzen garelako jakin gabe zer den normala izatea.

4.

Sarrera	Hizkuntzaren bidez aurreiritzi zaharkituak transmititzen ditugu.
1. paragrafoa	Nerea kexu da, ekarpen asko egin ditzake, gauza asko ditu esateko baina jendearentzat bere desgaitasuna da inportanteena.
2 paragrafoa	Inork ez daki zer den normala izatea. Miopea izatea normala da, baina gurpildun aulkian egotea ez?
3. paragrafoa	Inklusioa lortzeko, hizkuntza eta hitzak aldatu behar ditugu, traba mentalak jartzen baitituzte.
4. paragrafoa	Psikologo baten ustez, normaltasunaren bila bizi da jendea eta fikzio izugarria da.

5.

Galdera honek erantzun librea du. Hala ere, kontuan hartuko da azterketariak bere hitzak erabiltzea, testuko ideien kopia hutsa egin gabe. Adibideak jartzea ere baloratuko da. Horrez gain, ideien arteko koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna ere kontuan hartuko dira. Azalpenak gehitu ditugu adibide gisa, baina luzeagoak eta zehatzagoak ere izan daitezke.

● **Ez dadila izan ezgaitasuna definitzen gaituena; ez sustantibizatu adjektiboa.**

Desgaitasuna edukitzea ezaugarri bat da besterik ez, adjektiboa, pertsona hori definitzen duten beste hamaika adjektibo egon daitezke, altua, atsegina, langilea, miopea edo despistatua, kasurako... Beraz, ez dugu desgaitasuna izaera propioa duen zerbait, hau da, sustantibo, bihurtu behar. Ezaugarri bat da, besterik ez.

● **Desgaitasunik ez duen pertsonak, gaitasuna al du lan, mugimendu, kirol... guztiak egiteko? Ezetz esango nuke.**

Galdera erretorikoa da, Nereak uste du denok garela honetan edo hartan desgaituak, gutariko bakoitzak badu desgaitasun konkretu bat edo asko; izan ere, ezaugarri bat da besterik ez.



- **Klub prestigiotsu bat al da, non onartua izateko etiketa guztiek ez duten berdin balio? Etiketa batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa dute, beharbada onartuago daude.**

Normalak direnek talde bat, kluba eratzen dute, ustez, inportantzia handikoa. Gutariko bakoitzak identifikatzen duen ezaugarria du: ondo ikusten ez duena, edo despitatua dena, edo desgaitasun fisikoa edo buru desgaitasuna duena. Denok dugu etiketa bat gizarte honetan, denok gaude sailkatuak. Baina etiketa horiek ez dute esanahi berdina: batzuk sartzen dira normaltasunaren klub horretan eta beste batzuk, berriz, baztertuta sentitzen dira eta daude.

6.

Testuko hitza	Sinonimoa edo baliokidea
aurreiritzi	zerbait edo norbait ezagutu aurretik hartaz izaten den ustea.
azpimarratzen	nabarmendu
kexu	haserre edo nahigabeturik
asetzen	(gogo)beta
prestigiotsu	izen handiko
betikotu	iraun(arazi)
mundu-ikuskerak	gauzak ulertzeko modua
at	kanpo
estigmatizatu	behin-betirako gaitzetsi
patologia	gaixotasun